

gaz-teak




Getxo
bizi ezazu

Doako alea

332 Zb.
www.getxo.eus

>> 2019ko Otsaila



Nabarmen^{tzekoak}

- > “Smart City”, gazteentzako tailerren berritasunetako bat
- > 2019ko jaiak antolatzeko diru-laguntzak
- > EuskarAbenturan parte hartzeko lanak aurkezteko epea martxoaren 10ean amaituko da



EuskarAbenturan parte hartzeko lanak aurkezteko epea martxoaren 10ean amaituko da


2002an eta 2003an jaiotako gazteek 2019ko EuskarAbenturan parte hartu ahal izateko lanak aurkezteko epea martxoaren 10ean amaituko da. Entitate ugari laguntzarekin (tartean Udalarenarekin), espedizioa uztailearen 1ean hasiko da Maule-Lexarri eta uztailearen 31n amaituko da Getxon, berritasunen artean, udalerrian zehar egingo duten ibilaldiarekin. Done Jakue bide desberdinak jarraituz, Euskal Herria zeharkatuko dute 120 partaideek, UNESCOk izendatutako Gizateriaren Ondareak bisitatuz, jarduera ugari egitearekin batera. Gazteek euskaraz hitz egingo dute (ohitura sendotzen); inguruak ezagutu eta kirola praktikatu dute, kilometro asko oinez egingo baitute; balore kultural eta osasuntsuak sustatuko dituzte eta sareak sortuko dituzte. Partaideak aurkeztutako lanen egileen artean aukeratu dira. Formatu desberdinetan egin daitezkeen lanen gaiak *Maite ditut maite gure bazterrak*, *Joan-etorriak: migrazioen testigantzak* eta *Errimak eta erritmoak* dira. Izen-ematea eta informazioa: www.euskarabentura.eus.

“Smart City”, gazteentzako tailerren berritasunetako bat

Gazte Zerbitzuak seihileko honetarako antolatutako tailerren eskaintza kaleratu du. Horrek ohiko jarduerak aurreikusten ditu, esate baterako Makilajea eta Elikagaien manipulazioa, eta baita berri batzuk ere, hau da, Smarty City eta Youtubearen munduari lotutakoa.

Ekitaldietan dibertsitate funtzionala duten pertsonak ere parte hartu ahal dute. Horiak izena ematerakoan zehaztu behar dute ea laguntza motaren bat beharrezkoa den.

Izen-ematea: 944 66 03 53, gaztebulegoa@getxo.eus (izena, egin nahi den tailerra eta harremanetarako telefonoa, ahal bada eskukoa), www.getxo.eus/gazteria eta Gazte Informazio Bulegoa (Tangora Etxea, Algortako etorbidea 98).



TAILERRAK ETA IKASTAROAK: EKAINERA ARTE

TAILERRA/IKASTAROA	DATAK	ADINA	ORDUTEGIA	IZEN-EMATEA	HIZKUNTZA	TOKIA
XAKEA	Otsailak 19, 21, 26 eta 28	11-17	17:30-19:00	Otsailak 7-18	Euskara	Romo Kultur Etxea
AUTODEFENTSA FEMINISTA	Martxoak 4 eta 11	15-25	17:00-19:00	Otsailak 7-martxoak 3	Gaztelania	Romo Kultur Etxea
MAKILAJE/KARAKTERIZ. 1	Martxoak 1	11-17	17:00-21:00	Otsailak 7-28	Euskara	Romoko GureGune Gaztelekua
MAKILAJE/KARAKTERIZ. 2	Martxoak 9	11-17	17:00-21:00	Otsailak 7-martxoak 8	Euskara	Algortako GauEgun Gaztelekua
MARRAZTU ZURE YOUTUBER GOGOKOENA	Martxoak	11-17	17:30-19:30	Otsailak 7-martxoak 18	Gaztelania	Romoko GureGune Gaztelekua
ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA	Martxoak 20	18-30	17:00-20:00	Otsailak 7-maiatzak 19	Gaztelania	Algortako GauEgun Gaztelekua
SMART CITY	Ekainak 19 eta 20	11-17	17:30-19:30	Otsailak 7-ekainak 18	Euskara	Romo Kultur Etxea

BEKAK SARIAK

* **Research Fellows programa, 20 gazte ikertzaile kontratatze-ko**, ikerkuntzan 3 eta 10 urte bitarteko eskarmentua dutenentzat, Ikerbasquek deituta. Beren lana Euskadiko unibertsitate eta ikerkuntza zentroetan egingo dute. Bost urteko kontratuak eskaintzen dira, mugagabeko lanpostua lortzeko aukera ere ematen delarik. Izen-ematea: martxoaren 15era arte zabalik. Argibideak: Ainhoa Madariaga. Ikerbasque. M^a Díaz de Haro 3-6, Bilbo. Tel.: 94 405 26 60 eta madariaga@ikerbasque.net.

* **Gazteen itzulerarako laguntzak, 2019 urterako**, Eusko Jaurlaritzak deituta 35 urtetik beherako gazteen kontratazioa sustatzeko; gutxienez azken 12 hilabeteetan EAEn bizi izan ez direnentzat, eta baldintza hori beteta, eta kontratatu baino lehen gehienez aurreko hiru hilabeteetan EAEn itzuli eta ordutik lanean aritu ez direnentzat, hain zuzen ere. Eskaera epea: urriaren 18ra arte. Informazioa: Lanbide: 945 160 600 / 630 305 452 eta <https://bit.ly/2TqtO9o>

* **EUSTORY: historia lehiaketa gazteentzat**, History Network for Youngs Europeans-ek deituta 14 eta 21 urte bitarteko ikasleentzat, DBH, Batxilergo eta LH-ko 4. Mailakoak. “Trantsizio politikoa” da gaia eta sariak 200 eta 2.500€artekoak dira. Lanak entregatzeko epea: abuztuaren 18ra arte. Informazioa: concurso@eustory.es, <http://eustory.es/> y <https://bit.ly/2MGsY5X>

Romoko gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 8, ostirala: TXAPELKETA: FUTBOLINA

Hilak 10, igandea: TXAPELKETA: PIN PON

Hilak 13, asteazkena: TAILERRA: HARREMANAK

Otsailak 16, larunbata: IRTEERA: BOLERARA

Otsailak 19 eta 26, astearteak, eta 21 eta 28, ostegunak:

TAILERRA: XAKEA

Otsailak 22, ostirala: TAILERRA: SEXOLOGIA

Otsailak 24, igandea: SUKALDARITZA: TXINTXORTAK

Algortako gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 8, ostirala: TXAPELKETA: JUST DANCE

Hilak 9, larunbata: TXAPELKETA: PARTXISA

Hilak 16, larunbata: MASTER CHEF: STEAM KIT KAT PASTELA

Hilak 19, asteartea, eta 21, osteguna: ANIZTASUN FUNTZIONALAREN HILABETEAK

Hilak 20, asteazkena: EMOZIOEKIN JOLASEAN

Hilak 22, ostirala: TAILERRA: GRAFITIA

Hilak 23, larunbata: TXAPELKETA: FUTBOLIN

Hilak 28, osteguna: MASTER CHEF: TXURROAK TXOKOLATEAREKIN

Getxo
hazteko

WANTED

ORAIN DENBORA MUGARIK GABE, ZURE PROIEKTUA NAHI DUZUNEAN AURKEZTU DEZAKEZU

AHORA, SIN LIMITE DE TIEMPO, PODRÁS PRESENTAR TU PROYECTO CUANDO QUIERAS

Zure proiektua azaltzeko hitzordua eskatu gazteria@getxo.eus helbidera idatziz

Pide cita para explicarnos tu proyecto escribiendo a gazteria@getxo.eus

2019ko jaiak antolatzeko diru-laguntzak

Kultur Etxeak onetsi egin du aurten bertoko jaiak antolatzeko diru-laguntzak eskatzeko deialdia. Diruz lagunduko diren jaiak honako hauek dira: Inauterriak (Romo eta Algorta), Andra Mari, San Juan (Zubilleta eta Andra Mari auzoak), Karmen, Santa Ana, Nazioarteko Paella Txapelketa, Saninazioak, Romo, Portu Zaharra, Ama Mesedetakoa eta San Martin. Aurtengo aurrekontua, guztira, 227.920 eurokoa da, hau da, 2018koa baino apur bat gehiago.

Diru-laguntzak eskatzeko epea irekita dago honez gero eta auzo bakoitzeko jaietan, zaindariaren eguna baino 30 egun lehenago itxiko da.

Baloratuko diren irizpideak honako hauek izango dira: ekitaldi bera aurreko urteetan antolatzen eskatzaileak duen eskarmentua, antzeko ekitaldiak antolatzen duen eskarmentua eta aurkeztutako egitaraua.

Pertsona interesdunek deialdiaren oinarriak eta eranskinak udalaren webgunean deskargatu ditzakete, www.getxo.eus orrialdean.